

Arundo donax: KANABERA

Arundo donax: identifikazioa

Gramineo iraunkorra da eta 5-6 m-raino irits daiteke. Kanaberek 20-25 cm-ko segmentuak dituzte. Hostoek zinta itxura dute, 60 cm-raino irits daitezke eta berde kolorekoak dira. Gure eskualdean horitu egiten dira neguan. Bere infloreszentziak edo lore-multzoak 60 cm-raino irits daitezke. Bere sustrai-sistema errizomaduna indartsua da.



Eremu hezeetan landare ohikoa da: ibaiertzetan, aintziretan, hezeguneetan, ubideetan,... Ez ditu negu gogorrak ongi jasaten. Ingurune eguzkitsuak gustatzen zaizkio. Gure eskualdean errizometatik ugaltzen da, baita zurtoin helduen aldaxken bidez ere.

Arundo donax: jatorria eta kokapena

Jatorriz Asiakoa da. Mundu osoko eremu epeletan hedatu da mendeetan zehar (seguruenik milurtekoetan zehar). EAEn aurki dezakegu, penintsulako beste eskualdeetan bezain ugaria ez den arren.

Arundo donax: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Espezie honek **izugarritzko ahalmen inbaditzailea** du eraldaketak jasaten dituzten inguruneetan. Bere errizomek bizirik iraun dezakete denbora luzez. Urertzak inbaditzen ditu **bertako landaredia ordezkatzuz** eta egitura ia monoespezifikoa sortuz. Urertzak ezegonkortzen ditu eta tapoiak eragiten ditu ur-goraldiak daudenean. 630/2013 EDan sartuta dago. UICNko munduko 100 espezie inbaditzaile kaltegarrien zerrendan agertzen da.

Arundo donax: kontrol eta kudeaketa metodoak

Asko hedatu den eremuetan oso zaila da espezie hau kontrolatzea. Baina Euskadin oraindik asko ezarri ez denez, oraino kontrola daiteke. Hauek dira metodoak:

- Urarekin kontaktuan dauden eta *Arundo donax*-ez estalita dauden urertzetan, kanaberak gutxienez bi aldiz moztu behar dira uda bukeran, hauek ahuldu daitezke; neguan, azken orrazialdia emango zaio ezpondari eta **sahats adarrekin estaliko da**, hauek kanaberak ordezkatzeko baitituzte ondoko urtean
- Urertzetik kanpo, kanaberaz arrunt estalitako eremu lauetan ebakidura bat egingo zaio kanaberari aireko zatian, eskuko tresna edo tresna mekaniko baten laguntzaz; ondoren **material opaku gogorrez** estali (errizomen ernaberritzea eragozteko), 50 cm-ko landare-lur geruza bat ezarri eta, azkenik, bertako espezieak erein eta landatuko dira; sekzio hidraulikoan izan daitekeen beharakada ebaluatu behar da

Kasu larrietan, landareen ebaketa mekanikoa egingo da bigarren eta hirugarren adabegien artean eta glifosatoa berehala injektatuko zaie. Gerta daiteke tratamendua hiru aldiz errepikatu behar izatea urte berean, hiru asteko tarteak utziz. Ondoko udazkenean bertako espezieak landatu behar dira.

Urteroko kimuek ez dute ernaberitzeko gaitasunik, beraz, lehortu eta baloriza daitezke, bai materialki bai energetikoki. Lignifikatutako zurtoinak instalazio eskudunetara eraman behar dira beren balorizazio energetikorako. Bioerregaiak ekoizten dituzten instalazioetara ere eraman daitezke.